Zimurrak

Gidoia eta marrazkiak: Paco Roca
Itzulpena: Bego Montorio
Koloretan. Azal gogorra
104 orri. 17 x 24 cm. 15 euro
Nobela Grafikoa bilduma
ISBN: 978-84-15685-70-8

Irailaren 19tik aurrera salgai

Zahartzaroa eta Alzheimer gaitza bikain erretratatzen dituen narrazio hunkigarri bat

Zimurrak *albumak Komikiaren Sari Nazionala bereganatu zuen 2008. Urtean eta 58.000 ale baino gehiago saldu ditu; zinemarako egokitzapenak, berriz, bi Goya sari lortu zituen*

Beste Alzheimer krisi bat izan du Emiliok –bankuko exekutibo izandako gizona–, eta familiak zaharren egoitza batera eraman du. Han jende berria ezagutuko du; bere adineko kideak –nor bere ezaugarri klinikoekin eta bere nortasun propioarekin– batetik, eta zaintzaileak, bestetik, eta Emiliok haiekin bizitzen ikasiko du.

Emilio egunerokotasun geldoan murgilduko da, ordutegi finkoek markatutako errutinari lotuta: botikak hartzeko ordua, siesta, jatorduak, gimnasia, oheratzeko ordua... Migel gelakideak lagunduko dio gaitzaren kontra borrokatzen, memoria ez galtzen ahalegintzen, azken solairura, ezinduenera, eraman ez dezaten.

Orain arte komikietan gutxi jorratutako gai kontuzkoak landu ditu Paco Rocak Zimurrak lanean, hala nola Alzheimer gaitza eta zahartzaroko dementzia; baita sentikortasun samurrez landu ere, tarteka umore ukituren batekin, baina sekula karikaturan erori gabe.

Sinesgarri egiten da narrazioa, dokumentazio lan zorrotzaren ondorioz, besteak beste. Izan ere, Paco Rocak lagunen gurasoen eta adineko senitartekoen pasadizoak bildu zituen, eta zaharren egoitzetara joan zen hango bizimodua ezagutzearren. Lehen eskuko material horri esker, fikzio sendo bat eraiki du.

Sariak liburuari, eta bi Goya animazio-filmari

Sari ugari jaso zituen *Zimurrak* komikiak 2008an: Lucca-ko Jaialdian (Italia) istorio luze onenaren *Gran Guinigi* saria, Espainiako Kultura Ministerioak sustatzen duen Komikiaren Sari Nazionala, Bartzelonako Nazioarteko Komiki Azokaren obra onenaren eta gidoi onenaren sari nagusiak eta Tenerifeko *Diario de Avisos*ek ematen duen komiki espainiar hoberenarena. Kritikaren oniritzia ez ezik, irakurleena ere eskuratu du, dagoeneko 58.000 ale saldu baititu.

Animazio-film klasiko bat ere bada *Zimurrak*; Ignacio Ferrerasek zuzendu zuen eta Paco Roca gidoiaz eta pertsonaien diseinuaz arduratu zen. Goya sarietan, bi ataletan proposatu zuten, eta bietan irabazi zuen saria: animazio-film onenarena, eta egokitutako gidoi onenarena –Paco Roca bera, Ignacio Ferreras, Ángel de la Cruz eta Rosanna Cecchini izan ziren gidoilariak. Aipatzekoa da ordura arte inoiz ez zela animazio-filmik proposatu gidoi egokituaren Goya sarirako.

Gertaera dramatikoari aurre egin eta txepelkeriak edo pasadizoek gaina har ez dezaten lortzea, horra Rocaren bikaintasuna. (...) Liluratu egiten du, erakarri, entretenitu... tristuraz beteriko xarma hutsa da.
Peio H. Riaño. *Público*

Zahartzaroaren kontrako borroka zehaztasun handiz azaltzen du *Zimurrak*-ek. Armarik gabeko borroka bat, ez malkorik gabea ordea.
Yves-Marie Labé. *Le Monde*

Paco Roca (Valentzia, 1969) komikigilea izateaz gain, alor desberdinetan egoki moldatzen den irudigilea ere bada. Publizitate-lanak egiten hasi, eta ilustrazio estudio bat sortu zuen jaioterrian. Jatekoa segurtatuko zioten lanekin batera, komikiak egiten hasi zen berehala. Astiberrin zortzi lan argitaratu ditu: *El Faro, Arrugas, Las calles de arena, Emotional World Tour* –Miguel Gallardorekin batera–, *El invierno del dibujante* (Bartzelonako Komiki Azokako gidoi onenaren eta lan onenaren sariak, 2011n), eta *Memorias de un hombre en pijama* (Espainiako edizio lan onenerako proposatu zuten 2012an

Bartzelonako Azokan). Clásicos Ilustrados de Astiberri bilduman Franz Kafkaren *Metamorfosia* ilustratu ondoren, *El juego lúgubre* kaleratu zuen. *Los surcos del azar* da atera duen azkena (2013ko abendua), eta berriro erdietsi du bai kritikaren bai irakurleen oniritzia; horren adierazle, Zona Cómic eta Bartzelonako Komiki Azokako obra nazional onenaren sariak. Urriaren hasieran, *Andanzas de un hombre en pijama* plazaratuko du, El País Semanal gehigarriko orrietan argitaratzen den bere alter ego komikoaren bilduma.

Paco Rocaren beste lan batzuk



Arrugas edizio berezia
76 orriko gehigarria, material grafiko eta testu osagarriekin
180 orri. 20 euro
ISBN: 978-84-15685-25-8



Los surcos del azar
328 orri. 25 euro
ISBN: 978-84-15685-36-4

El Faro
64 orri. 11 euro
ISBN: 978-84-92769-26-1

El invierno del dibujante
128 orri. 16 euro
ISBN: 978-84-92769-81-0

Memorias de un hombre en pijama
140 orri. 16 euro
ISBN: 978-84-15163-31-2



El juego lúgubre
80 orri. 13 euro
ISBN: 978-84-15163-58-9

Apdo. 485. 48080. Bilbao Tel.: 661 288 747 info@astiberri.com www.astiberri.com